

Jose Luis Lizundia Askondo jauna, Euskaltzaindiaren Idazkari-ordea eta bere Onomastika Batzordeko Idazkari denak, ondoko

DIKTAMEN hau ematen du:

Batzorde honek bere azken bilkuran, hain zuzen, hil honen lean, Gernikako Kultur Etxean egindakoan, beste gai batzuren artean, Udalbataza horren eskariari erantzunaz, ondoko hau erabaki zuen:

Elkargo Akademiko honek prestatuturiko eta onartutako *Euskal Herriko Udalen Izendegian*, bere 225. zenbakiaz datorrena, eta orain arte Administrazioaren bertsio ofizialean: *Elduayen* deitzen dena, euskal bertsio ofizialean: ELDUAIN da.

—Zaldibiak 1575ean idatzi zuen *Suma de las cosas cantábricas y guipuzcoanas* deritzan liburuaren XXIII. kapituluan “Lope Saenz de *Elduain*” dakar.

—Juan Carlos Guerra euskaltzain eta historiagileak, bere *Ensayo de un padrón histórico de Guipúzcoa, según el orden de sus familias pobladoras* (1929) deritzan liburuaren 176. orrialdean: “ELDUAIN, Joanes, de la casa de Martín Sancena en Elduayen, v. de San Sebastián en 1566” dio.

—Juan Ignacio Iztueta historiagileak, *Guipuzcoaco provinciaren Condaira edo Historian* (1847), hiri edo herri izenak zerrendan jartzean, “Elduayen” ekarri arren, euskararen kontestuan, askoz ugariago *Elduain* dakar. Ikusten denez, *Elduain* forma ateratzen zitzaion Iztuetari. Hara hemen adibide batzuk: 90. orr.: “*Elduaingo* plazan”; 115. orr.: “*Elduain* aldetic jachitzen diraden urac”.

—Deustuko Unibertsitateko EUTGn irakasle den Eugenio Muñagorri elduaindarrari lekukotasuna eskaturik, herriko zaharrek *Elduain* erabiltzen dutela ziurtatu dio Juan San Martin euskaltzain eta batzordekideari.

Guzti horregatik, Erakunde honen Onomastika Batzordeak, ELDUAIN izena birresten du, "Elduayen" erara ofizialki ezagutzen izan den udala.

Eta hala adierazteko eta bertako Udalbatzari bidaltzeko, izenpetzen du Bilbon, mila bederatziehun eta laurogetazortzigarreneko Urriaren hogeian.

On ikusia

*E. Knörr*

*Batzordeburua*